

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak partzuergo publiko-pribatu bat sortu du Espainiako eta atzerriko hondakin-uren tratamendua kudeatzeko

Ekimen hori Gobernuak eta bederatzi enpresek osatzen dute, eta Moderna fundazioak kudeatzen du

Jueves, 12 de febrero de 2015

Nafarroak enpresen partzuergo publiko-pribatu bat sortzea sustatu du, Espainiako gainerako lekuetan eta atzerrian hondakin-urak tratatzeko proiektuak kudeatu ahal izateko asmoz.

Zehazki, partzuergoa Foru Gobernuak, NILSA (Toki Azpiegituren Nafarroako Sozietatea SA) sozietate publikoaren bidez, eta bederatzi enpresa nahiz entitatek osatzen dute: Aqualia, Arian, EIN, Ingeniería Proyectos Navarra, Iniciativas Innovadoras, Kaizen-Eureka eta Whitebiotech, bai eta AIN eta CNTA teknologia-zentroek ere.

[MODERNA](#) fundazioak kudeatzen du, eta entitate horrek lankidetzeta publiko-pribatua sustatzen du.

Taldeko osaera-ekitaldia MODERNAREN egoitzan egin da gaur goizean. Ekitaldiaren buru izan dira Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari eta NILSAko lehendakari ere den José Javier Esparza. Kontseilariak azpimarratu duenez, "partzuergoak Estatuko nahiz nazioarteko 25 proiektu aztertu ditu dagoeneko, eta haien barnean daude: merkaturatzea eta lurralde-aholkularitza, aholkularitza juridiko, tekniko eta ingurumen-aholkularitzako lanetatik hasita, hondakin-urak tratatzeko instalazioen diseinu, eraikuntza eta kudeaketetarako.

Ekitaldian honako entitate eta enpresetako ordezkariak parte hartu dute: AIN (Jesús de Estaban eta Natalia Ortega), Aqualia (Fernando de la Torre eta Daniel Mesa), Arian (Javier Martínez), CNTA (Javier Jáuregui eta Paula Tejada), EIN (Iñaki Eguiluz), Moderna fundazioa (Cernin Martínez eta Begoña Vicente), Ingeniería Proyectos Navarra (Ignacio Aramendía), Iniciativas Innovadoras (Camino Fábregas) eta Nilisa (Andrés Sola eta Ana Marta Lasheras).

Partzuergoaren osaera

Prozesu hau 2013an hasi zen, partzuergoaren osaeran parte



Esparza kontseilaria partzuergo publiko-pribatuko osaeraren buru.

hartzeko irekitako baldintza-agiri bat argitaratu zenean, eta bederatzi hautagaitza jaso zituen. Haiek guztiek proiektuaren barnean izateko gutxieneko kaudimen, esperientzia eta gaitasunezko baldintzak betetzen zituzten.

NILSAren eginkizuna sektoreko enpresen gaitasun eta esperientziak koordinatzea da, bai eta Estatuko nahiz nazioarteko beste erakunde publiko eta instituzionalekin dituzten harremanak erraztea ere.

Gaur egun, NILSAk Nafarroa guztian 2.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei zerbitzua ematen dien 85 instalazio baino gehiago kudeatzen ditu; horri esker, 91/271 hondakin-urei buruzko Europako zuzentaraua bete ahal izan da (Espainiako kasu bakarra). Aipatu beharra dago, arau horrek Europako erkidegoko esparru bat finkatzen duela ur-hondakinak arazteko, eta 2.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietatik datozen hondakin-urak arazteko betebeharra ezartzen duela.